

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2026ko irailaren 1eko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena

— **Foru dekretua:**

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

31/2026 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren eskumen eremuan mugikortasun jasangarriaren arloan ematen diren dirulaguntzen emakida arautzeko oinarri orokorreari.

— **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

556/2026 Erabakia, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren telefono deiei erantzuteko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 321.860,00 eurokoa izango da, BEZa barne, eta, egikaritze epea, 2027ko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31ra bitartekoa.

557/2026 Erabakia, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Autodesk produktuen harpidetza eta mantentze lanak prozedura ireki bidez berritzeko kontratazio espedienteari. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 482.556,31 eurokoa izango da, BEZa barne, eta, egikaritze epea, 2027ko urtarrilaren 23tik 2030eko urtarrilaren 22ra bitartekoa.

558/2026 Erabakia, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren jabetzako Oracleren lizentzien euskarri eta mantentze zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 513.040,00 eurokoa izango da, BEZa barne, eta, egikaritze epea, 2027ko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31ra bitartekoa.

559/2026 Erabakia, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Giro-nako Udalarekin lankidetzak hitzarmen bat sinatzeari, PDF dokumentuak anonimo bihurtzeko eta zentsuratzeko aplikazio informatikoa lagatzeko eta erabiltzeko.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

560/2026 Erabakia, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Diputatu Nagusiaren abuztuaren 14ko 134/2026 Foru Dekretua berresteari.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

561/2026 Erabakia, irailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Mendialdeko asfalto naturaleko meatze paisaien kudeaketa integralerako zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 340.000,00 eurokoa izango da, BEZa barne, eta, egikaritze epea, bi urtekoa.